



EUSKO JAURLARITZAKO BERDINTASUN-POLITIKEN

ANTOLAMENDU-EGITURA: SUSTAPEN ETA

KOORDINAZIO EGITURAK¹

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 19a

¹ Dokumentu hau oinarrituta dago Sail arteko Talde Teknikoan 2010eko maiatzaren 4an egindako "Eusko Jaurlaritzako berdintasun-politiken antolamendu-egitura: sustapen eta koordinazio egiturak" dokumentuan. Dokumentu horretan sartu dira, 187/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Lehendakariitzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, Emakunderi genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzeko ardura ezarri diona; eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko dena, bi horiekk onartzearen ondorioz egindako aldaketak.

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. EGITURA FORMALAK (arauetan berariaz jasoak)

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDEA

- A. Izaera
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

2.2. SAILARTEKO TALDE TEKNIKOA (GTI)

- A. Izaera
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

2.3. BERDINTASUNERAKO UNITATEAK

- A. Izaera eta araudia
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

2.4. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- A. Izaera
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

3. EGITURA INFORMALAK (arauetan berariaz jaso gabeak, baina de facto badirenak)

3.1 SAILEKO TALDE TEKNIKOA (GTD)

- A. Izaera
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

3.2 BERDINTASUNERAKO UNITATEEN SAREA

- A. Izaera
- B. Egitekoak
- C. Ezaugarriak
- D. GTIren gomendioak

4. FLUXUGRAMA

1. SARRERA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko gaur egun nazioartean egokientzat jotzen diren bi estrategia osagarriak zehazten ditu: **ekintza positiboa eta genero-ikuspegia txertatzea** edo genero-mainstreaminga.

Azken estrategia horri dagokionez, Legearen 3.4 artikuluan ezartzen denez, "euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten". Horretaz gainera, honela definitzen du genero-ikuspegiaren txertatzea "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea".

Genero-mainstreamingaren funtsezko neurrietako bat administrazioaren eremuan hori ahalbidetzen duten antolamendu-egiturak sortzea da. Horretarako, 4/2005 Legearen II. Tituluan eta legea garatzeko arauetan berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitateak arautzen dira².

Oinarri horretatik abiatuta, Sailarteko Talde Teknikoak, Sailarteko Batzordeko kideei beren egitekoetan laguntza eta aholkularitza teknikoa emateko egitekoa duenez, Emakunden bultzatu den hausnarketa-prozesuaren baitan,

² II. tituluan beste koordinazio-egitura bat ere aurreikusten da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea; ez da dokumentu honen gaia izango, organo horretan, Eusko Jauriaritzak ez ezik beste euskal administrazio publiko batzuek ere parte hartzen dutelako. 4/2005 Legean aipatzen diren beste egitura batzuk ere, berdintasun-politikekin zerikusia dutenak baina berez sustapen eta koordinazio egiturak ez direnak, ez dira dokumentu honetan aztertuko, hala nola: Begira/Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza (4/2005 Legearen xedapen iragankorra eta apirilaren 27ko 78/1998 Dekretua), Emakunderen Aholku-Batzordea (4/2005 Legearen xedapen iragankorra eta ekainaren 8ko 103/1998 Dekretua) eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Erakundea (4/2005 Legearen IV. Titulua eta ekainaren 13ko 119/2006 Dekretua).

egokitizat jo du **dokumentu tekniko bat** egitea, baliagarri izan dadin **orientazioa eta laguntza emateko**, Sailarteko Batzordeko kideek egin beharreko lanari dagokionez. Dokumentuak, funtsean, **xede** hau du:

- a) Dokumentu batean **biltzea** Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politikak garatzeko dauden sustapen eta koordinazio egitura guztiak, nola formalak (arauetan berariaz jasoak) hala informalak (arauetan berariaz jaso gabeak, baina *de facto* badirenak), eta horien izaera, xedea, egitekoak eta ezaugarri nagusienak **labur-labur azaltzea**.
- b) Egitura horien zeregina optimizatzeko funtsezkotzat jotzen diren **gomendioak** proposatzea, etorkizunean zehatzago egin daitezkeenak gorabehera.
- c) **Fluxugrama** bat proposatzea, antolamendu-egituren arteko harremanen sistema argitzeko.

Edonola ere, dokumentu honetan adierazitakoa aldatu egin daiteke bihar-etzi, egituren artean ezartzen diren dinamiken emaitzen eta esperientzien arabera eta egituren bilakaeraren beraren arabera. Bestalde, dokumentuan jasotzen diren proposamenen oinarrian aurreko dokumentu baten ondorioak daude; dokumentu hori Sailarteko Talde Teknikoaren baitan egindako diagnostiko erako hausnarketa baten emaitza da³.

³ "Azken urteotako berdintasun-politiken ebaluazio kualitatiboa". Berdintasunerako Unitateen Hausnarketa. 2009.

2. EGITURA FORMALAK

2.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

SAILARTEKO BATZORDEA

A. IZAERA

Kide anitzeko organoa da, Emakunderi atxikia; 4/2005 Legearen 13. artikuluan aurreikusia dago, eta abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautu zen. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean Eusko Jurlaritzako jarduerak koordinatzea du xede.

Batzorde honek ordeztu egiten du apirilaren 6ko 97/1993 Dekretuaren itzalpean sortutako sailarteko batzordea, alegia, Euskal Autonomi Elkarteko emakumezkoentzako ekintza positiboko planaren gauzatzea koordinatzeko Sailarteko Batzordea.

B. EGITEKOAK

- Jurlaritzaren berdintasun-politikei dagokienez, eztabaidarako gune eta esperientziak eta proposamenak partekatzeko gune izatea.
- Legegintzaldi bakoitzean Eusko Jurlaritzak onartu beharreko Berdintasunerako Plana egiten parte hartzea.
- Berdintasunerako sailtako plan eta programak egiteko irizpideak ezartzea, bai eta plan eta programa horien oinarritzko edukia ere, non lortu beharreko helburuak, garatu beharreko ekintza zehatzak, aurreikusitako gauzapean-egutegia, estimatutako aurrekontua eta gauzatzeko ezarritako baliabideak jaso beharko diren.
- Sail, erakunde autonomiadun edo erakunde publikoetako berdintasunerako plan edo programak ezar daitezzen bultzatzea eta koordinatzea.
- Jurlaritzako sailek berdintasunaren alorrean egindako jarduerari buruzko jarraipen-txostenak egitea urtero.
- Sailarteko Talde Teknikoaren lana gidatu eta gainbegiratzea.
- Ematen zaizkion gainerako eginkizun guztiak.

C. EZAUGARRIAK

- Sailarteko Batzordeko kideak:
 - a) Presidentea: lehendakaria.
 - b) Presidenteordea: Emakundeko zuzendaria.
 - c) Batzordekideak:
 - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
 - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak izendatutako pertsona bat, sailburuorde maila duena.
 - d) Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.
- Urtean ohiko bilera bi egin behar dira gutxienez.
- Ezohiko bilerak egin daitezke berariazko gaiak lantzeko.

D. GTIren GOMENDIOAK

Nola optimizatu Sailarteko Batzordearen zeregina?

- Funtsezkotzat jotzen da Sailarteko Batzordearen zeregina indartzea, honako honetarako:
 - Berdintasunaren alorrean oro har Jaurlaritzako langileen eta bereziki berdintasunerako unitatekoen lanari **babes politiko handiagoa** emateko.
 - Alor horretan sailek hartutako **konpromisoak betetzen diren** zaintzeko.
 - **Lantalde Teknikoak** sor daitezen sustatzeko; horiek berariaz eta sailartean ekingo diete berdintasun-politikak garatzeko giltzarri diren alderdi batzuei, besteak beste, aurrekontu, estatistika, administrazio-kontratazio eta diru-laguntzekin zerikusia dutenei.
- Batzordea osatzen duten sailburuordeek egin beharreko zereginari dagokionez, garrantzitsutzat jotzen da:
 - Berdintasunaren alorreko **prestakuntza** jasotzea, bete beharreko egitekoei egokitua.
 - Sailek hartutako **konpromisoak betetzen diren zaintzea**.
 - Berdintasunerako unitateen eta sailetako talde teknikoaren (SAT) zeregina **babestea** eta baloratzea.
 - Berdintasunerako unitateen laguntzarekin, protokoloak eta beste mekanismo batzuk sustatzea, **informazioa helaraztea eta lankidetz**a ahalbidetzeko beste organo edo administrazio-unitateen artean (besteak beste, Sailarteko Batzordera joaten den jendearen eta gainerako

sailburuordetza, sailburutza, zuzendaritza, zerbitzu-burutza eta berdintasun teknikarien artean); horrela, saileko langile guztiek berdintasun-politikei buruzko informazioa edukiko dute eta guztiak izango dira partaide.

- o **Berdintasunerako konpromisoa gidatzea** sailetan eta sailaren jardueretan, berdintasunak dituen konnotazio positiboak azpimarratuz: gizarte aurrerapena, berrikuntza, kalitatea, modernotasuna, gizarte erantzukizuna...

2.2. SAILARTEKO TALDE TEKNIKOA (GTI)

A. IZAERA

Sailarteko egitura teknikoa da, abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren itzalpean sortua, helburu duena Sailarteko Batzordeko kideei laguntza eta aholkuak ematea, euren eginkizunak zuzen bete ditzaten.

B. EGITEKOAK

- Talde horrek agintzen zaizkion gaiak aztertu, eta haiei buruzko txostenak eta proposamenak aurkeztu behar ditu.

C. EZAUGARRIAK

- Sailarteko Talde Teknikoaren osiera:
 - a) Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkari bat, teknikaria (saileko berdintasun-unitatekoa, ahal izanez gero).
 - b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko ordezkaria, teknikaria; GTIren koordinazioa hartuko du bere gain.
- Urtean 3 aldiz batuko da gutxienez.

D. GTIren GOMENDIOAK

Nola optimizatu Sailarteko Talde Teknikoaren zeregina?

- Funtsezkotzat jotzen da GTIren **lan-saioen kopurua gehitzea**, horrela bihurtuko baita esperientziak partekatzeko gune, jakintza sortzeko gune eta gai giltzarri hauei buruzko hausnarketa-estrategikorako gune:
 - Berdintasunerako **Jardunbide Egokien Bankua** eguneratzea⁴.
 - Administrazioaren jardunean (aurrekontuak, estatistikak, kontratazioa, diru-laguntzak...) genero-ikuspegia txertatzea ahalbidetzen duten **metodologiak eta tresnak** prestatzea.
 - **Jarraibideak** proposatzea sailarteko berdintasunerako dokumentu programatikoak (legegintzaldikoa eta urtekoa) egiteko, gauzatzeko, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.
 - **Baterako estrategiak** bilatzea, sailarteko, eta bereziki, GTDeko langileen motibazioa eta inplikazioa areagotzeko.

2.3 BERDINTASUNERAKO UNITATEAK

A. IZAERA

4/2005 Legearen bidez sortu (11. artikulua), eta abenduaren 26ko 213/ 2007 Dekretuaren bidez arautu ziren. Administrazio unitateei dagokie Saileko zuzendaritza eta arloekin eta erakunde autonomiadun, erakunde publiko eta horri atxikitako organoekin elkarlanaren aritzea, eta koordinazio eta sustapen lanak egitea, 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean onartu beharreko Berdintasunerako Planean agindutakoa betetzeko.

⁴ Jardunbide Egokien Bankuaren helburua da Eusko Jaurlaritzako sailak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatuz burutzen ari diren jarduera esanguratsuenak dokumentatzea eta balioestea, eta xede du esperientziak eta ikaskuntzak artxibatu, zabaldu eta trukatzeko, eta baliagarri izatea berdintasunerako politikak diseinatu eta sustatzen diharduten eragileen artean jakintza transferitzeko eta kontsultak egiteko.

B. EGITEKOAK

- Sailerako berdintasunerako planak edo programak, legegintzaldikoak nahiz urtekoak, proposatzea.
- Sailaren jarduera-eremuan ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.
- Dagokion sailaren edo jarduera-eremuaren arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko aholkuak ematea saileko langileei eta, hala dagokionean, sailari atxikitako erakunde autonomiadun, erakunde publiko eta organoetako langileei eta, bereziki, generoaren araberako Eraginaren Txostenak egitea dagokionari.
- Aholkuak ematea Sailaren ardurapeko sektorean emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruz.
- Saileko langileek emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan behar duen prestakuntzari buruzko diagnostikoak egitea.
- Saileko berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea.
- Askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak balia ditzaten bermatzeko neurriak proposatzea eta bultzatzea.
- Saileko organo eskudunari laguntzea erakundearen esparruan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematen, prebenitzen eta deuseztatzen.
- Berdintasunaren alorrean eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin solasaldi teknikoak izatea eta Emakunderi atxikitako berdintasun-politiken koordinazio teknikorako organoetan parte hartzea.

C. EZAUGARRIAK

- Eusko Jaurlaritzako sail guztietan administrazio-unitate bat egon beharko da gutxienez, berdintasun-politikak bultzatzeaz eta koordinatzeaz arduratzeko.
- Unitateek posizio organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute (egiteko horizontal edo zeharkakoak dituzten organoetan, ahal izanez gero), bai eta beren helburuak bete ahal izateko aurrekontu-hornidura nahikoa ere.
- Sail guztietan ez ezik, erakunde autonomiadun eta erakunde publiko hauetan ere berdintasunerako unitateak egon behar dira:
 - a) Eustat-Euskal Estatistika Erakundea.
 - b) HAEE-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
 - c) HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.
 - d) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia.
 - e) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
 - f) EITB-Euskal Irrati Telebista.
 - g) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua.
 - h) ETS-Euskal Trenbide Sarea.
- Aurreko atalean aipatutako unitateak sortu arte, kasuan kasuko erakundea atxikita duen saileko unitateak hartuko ditu berdintasunaren alorreko sustapen, koordinazio eta lankidetzaren egitekoak.

D. GTIren GOMENDIOAK

Nola optimizatu berdintasunerako unitateen zeregina?

- Oso garrantzitsutzat jotzen da saileko langileei **berdintasunerako unitateen** eta horien egitekoen **berri emateko neurriak** diseinatu eta abian jartzea; bereziki azpimarratzekoa da horien egitekoak direla berdintasun-politiken alorreko sustapen, koordinazio, lankidetzeta eta aholkularitza, baina sail osoaren zeregina dela politika horiek gauzatzea.
- Horren haritik, funtsezkoa da protokoloak eta bestelako mekanismo batzuk ezartzea eta zabaltzea, saileko organoen arten eta langile guztien artean berdintasunaren alorrean **informazioa helarazteko eta lankidetzan** aritzeko.
- Genero-ikuspegia txerta dadin ahalbidetzeko, saileko **gai estrategikoei** ekiten dieten gune edo proiektuetan, berdintasunerako unitateen partaidetza edo horiengandik aholkularitza jasotzea ere funtsezkoa da.

- Saileko berdintasun-politiketan **herritarren partaidetza** indartzeko eta sailaren baitan eratuta dauden kide anitzeko partaidetza-organoen ohiko jardunean genero-ikuspegia txertatzeko, komenigarritzat jotzen da berdintasun-unitateak organo horietan sartzea -ahal izanez gero eta kasuan kasuko gaiaren arabera- edo, bestela, beste bide batzuk antolatzea, partaidetza eraginkorra ahalbidetzeko.

2.4 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

A. IZAERA

Emakunde otsailaren 5eko 2/1988 Legeaz sortu zen. Erakunde autonomiaduna da, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikia. Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasunerako politikak bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen da, eta bere xede nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea, benetakoa eta eraginkorra, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

B. EGITEKOAK

- Erakundearen xedeak lortzeko jarraibideak prestatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek aplika ditzaten sustatzea.
- Berdintasunerako politikei eta autonomiako legediari jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etortzeari dagokionez.
- Legeak eraldatzeko proposamenak egitea, sexu bien arteko berdintasuna, benetakoa eta eraginkorra, oztopatzen edo eragozten duten trabak kentzeko; eta 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea.
- Txostenak egitea generoaren araberako Eraginaren Txostenak zuzen egiten diren egiaztatzeko, eta Jaurlaritzako sailetako, foru aldundietako eta toki erakundeetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak legealdi bakoitzean Eusko Jaurlaritzak onartu beharreko plan orokorrean aurreikusitako esku-hartze ildoetara eta jarraibideetara nola egokitzen diren aztertzeko.
- Genero-ikuspegia politikaren arlo guztietan txertatzeko metodoak diseinatzea eta sustatzea.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko jarduerak bultzatzea, horri buruzko aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea euskal botere publikoekin, eta sailarteko batzordearen eta erakundearteko batzordearen zereginak koordinatzea.
- Emakumeen eta gizonen egoera, behar eta interes desberdinak aztertzea, bai eta horrek politikagintzan, ekonomian, kulturgintzan eta gizartean sortzen dituen desberdintasunak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea eta proposatzea, Eusko Jaurlaritzak onar dezan, eta plana ebaluatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko plan, programa eta jarduerak egin ditzaten, enpresak eta erakundeak baliabide material, ekonomiko eta pertsonalez hornitzeko laguntzak eta bestelako sustapen-neurriak ezartzea eta aholku ematea.
- Askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeak oinarritzko gizarte-eskubideez baliatu daitezten bermatzeko zerbitzuak eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko bideratutako zerbitzuak bultzatzea eta proposatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, sentsibilizazio-jarduerak eta –kanpainak eginez, sexu bien arteko berdintasuna lortzeko eta emakumeak ahalduentzeko lana egiteko beharraz.
- Harremanak eta partaidetza-bideak ezartzea, Erakundearen helburuak lortzen laguntzen duten xede edo egitekoak dituzten erakunde publiko eta pribatuekin.
- Sexua dela-eta emakumeen aurkako bereizkeria, abusu edo eskubide-urraketei buruzko salaketak bideratzea eta dagozkion ekintzak baliatzea, eta zehatzeko ahalmenaz baliatzea 4/2005 Legearen ezarritakoaren arabera.

Gainera, 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, onartzearen ondorioz honako egiteko hauetan ere jardungo du:

- Ikerketak egitea, ofizios edo alderen batek eskatuta, sektore pribatuan sexuagatik zuzeneko edo zeharkako bereizkeria gertatu dela uste bada, halako bereizkeria-egoerak argitzeko.
- Negoziazio-bideak eta gomendioak ematea pertsona fisiko nahiz juridikoei, sektore pribatuan gertatzen diren sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo –ekintzak zuzentzeko, eta emandako gomendioen jarraipena egitea, betetzen diren ikusteko.
- Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak gertatzen direnean.
- Jazarpen sexistaren kasuak errazago konpontzeko bitartekoa izatea.
- Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta lege honetan xedatutakoari jarraikiz, txostenak eta irizpenak egitea.
- Lan-administrazioako agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan bereizkeriaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

C. EZAUGARRIAK

- Buru biko zuzendaritza du: alde batetik, zuzendaria eta bestetik, Zuzendaritza Kontseilua; kontseiluko buru lehendakaria da, eta kontseilukide, autonomia, foru eta tokiko administrazioko ordezkariak, emakumeen elkarte mugimenduko ordezkariak, Eusko Legebiltzarreko ordezkariak eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde arlo pertsonalean edo profesionalean nabarmendu diren pertsonak, Legebiltzarrak hautatuak.
- Bere baitan, besteak beste organo hauek ditu:
 - a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea.
 - b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
 - c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
 - d) Emakunderen Aholku Batzordea.
 - e) Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza Batzordea (Begira).

D. GTIren GOMENDIOAK

Nola optimizatu Emakunderen zeregina?

- Oso garrantzitsutzat jotzen da Erakundeak atxikita dituen organoen **koordinazioa eta gidaritza indartzea**, batez ere, sailarteko eta erakundearteko batzordeetan eta lantalde teknikoetan.
- Emakunderen berdintasunerako unitateei (banaka nahiz oro har) ematen dien **aholkularitza eta laguntza indartzea** ere beharrezkoa da.

3. EGITURA INFORMALAK

3.1 SAILEKO TALDE TEKNIKOA (GTD)

A. IZAERA

Egitura tekniko honek ahalbidetzen du berdintasunerako politikak modu eraginkorrean aplikatzea zuzendaritzetan eta, kasuan kasu, Jaurlaritzako sailei lotutako edo atxikitako erakunde, sozietate publiko eta erakunde autonomiadunetan. Sailarteko Batzordeak 2008ko martxoaren 12an egindako bilkuran erabaki zen talde horiek sortzea, ondoren aipatzen diren egitekoak betetzeko. Hala ere, talde horiek ez daude halakotzat araututa.

B. EGITEKOAK

- Zuzendaritzetan ekintzak gauzatu behar dituzten pertsonak, eta kasuan kasu, erakunde autonomiadunak edo sozietate edo erakunde publikoak **koordinatzea**, informazioa jasoz eta berdintasun-politikak garatzeko prozesuko fase guztietan lagunduz:
 - **Plangintza:** legegintzaldiko dokumentu programatikoak, urteko programazioa eta programazio-fitxak egitea, eta bileretan parte hartzea, halakoetara deitzen diotenean.
 - **Gauzapena:** Zuzendaritzak, edo kasuaren arabera, erakunde autonomiadunak edo erakunde publikoak harturiko konpromisoan jasotako ekintzen gauzapena gainbegiratzea eta koordinatzea, ekintza horien arduradunak erakundeko pertsona guztiak inplikatur.
 - **Ebaluazioa:** bere zuzendaritzako, eta kasuaren arabera, erakunde autonomiaduneko edo sozietate edo erakunde publikoko ebaluazio-fitxak eta jarraipen-agiria egitea, eta informazio hori sailaren txostena koordinatzen duen unitateari ematea.
 - **Komunikazioa:** berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase guztietan, bere zuzendaritzari dagozkion jardueren berri ematea berdintasunerako unitateari eta/edo GTleko arduradunari eta bere zuzendariari.

C. EZAUGARRIAK

- Sailetako talde teknikoen osiera: berdintasunerako unitateetako teknikariak daude -sustapen eta koordinazio lanak dagozkie-, eta horretaz gain, hainbat zuzendaritzetako langileak eta, kasuaren arabera, sailei lotutako edo atxikitako erakunde autonomiadunetako edo sozietate edo erakunde publikoetako langileak, haiek izendatuak.

D. GTIren GOMENDIOAK

Nola optimizatu Sailetako Talde Teknikoen zeregina?

- Funtsezko jotzen da **zuzendaritza guztiek**, eta kasuaren arabera, sailei lotu edo atxikitako erakunde autonomiadunek eta erakunde eta sozietate publikoek⁵ GTDan **ordezkaritza izatea**, sailarteko batzordean parte hartzen duen sailburuordeak eskatuta dagokion zuzendariak egindako izendapen formalaren itzalpean.
- GTDeko kideak izendatzerakoan irizpide hauek kontuan hartzea ere garrantzitsua da:
 - Ahal izanez gero, gai horretan **sentsibilizatuta dauden** eta/edo horri buruzko **prestakuntza duten eta solasaldirako gaitasuna eta autoritatea duten** langileak izendatu behar dira (zerbitzu burutzak, esaterako) zuzendaritzaren edo erakunde publikoaren baitan, kontuan hartuta zeintzuk diren kasu bakoitzeko arlo edo **zerbitzu estrategikoak** (estatistika organoak, aholkularitza juridikoak, langileak, kontratazioa,...).
 - **Talde mistoak** eratu behar dira, non emakumeek eta gizonak parte hartuko duten.
 - **Ordezkoak** ere izendatu behar dira titularrak ez daudenerako (gaixotasuna, amatasuna, ea.), eta oro har, beren egitekoetan laguntza emateko ere bai.
 - Izendatutako pertsonen artean **gehiegizko errotazioa saihestu** behar da, taldeari egonkortasuna emateko eta lan-dinamika estrategikoak sortzeko.
- Lehentasunezko zat jotzen da, halaber, GTDan parte hartzen duten pertsonen lana aitortzeko eta errazteko neurriak hartzea, hala nola:

⁵ Sozietate publikoek GTDan izango duten partaidetzak ez du kaltetuko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak edo programak egiteko eginkizuna, 4/2005 Legearen 40. artikuluan aurreikusia eta *Guía para el Gobierno Responsable de Entes, Sociedades y Fundaciones del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi* izeneko gidaliburuaren 2.5.6 atalean ere jasoa (Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoan 2009an egindako gidaliburua).

- **Berdintasunari buruzko prestakuntza** eta informazioa balia dezaten ahalbidetzea, beren lanpostuari izendatutako gainerako zereginen dagokien prestakuntza gorabehera.
- **Beste lan-karga batzuez gabetzea**; horretarako interesgarria litzateke GTDeko zereginak betetzeko behar diren ordu kopuruaren urteko estimazio bat egitea ekitaldi bakoitzaren hasieran.
- Beren zereginari **babes politikoa** eman diezaioten bultzatzea.
- Protokolo edo bestelako mekanismo batzuk ezartzea eta zabaltzea, **informazioa helarazteko eta lankidetzan aritzeko** GTDeko kideen eta sailarteko batzordeko sailburuordearen artean eta bere zuzendaritzako langileen artean, politiko (zuzendari) nahiz teknikari (zerbitzuburuak, berdintasunerako unitateak, gainerako teknikariak).
- Berdintasunerako unitateetatik jasotzen duten **laguntza teknikoa** eta aholkularitza areagotzea, eta **elkarlanean** ari daitezen sustatzea, GTDek zubi-lana egin dezaten unitateen eta zerbitzuburuaren artean; sailean berdintasun-politikak ikusarazten laguntzea; eta jakintza sortzeko eta elkarrekin lan egiteko guneak ahalbidetzea, sailaren eta zuzendaritza guztien eguneroko lanean eta, kasuaren arabera, lotutako edo atxikitako erakunde publiko edo erakunde autonomiadunen eguneroko lanean genero-ikuspegia benetan txertatzeko prozedurak eta tresnak prestatu ahal izateko.
- Etorkizunean **sailtako talde teknikoak arautzeko** prozesuari ekitea, babes juridikoa izan dezaten.

3.2 BERDINTASUNERAKO UNITATEEN SAREA

A. IZAERA

Formalki arautu gabeko egitura da. Eusko Jaurlaritzako Berdintasunerako Administrazio Unitateen koordinazio eta elkarrekiko laguntza etengabearen beharrei erantzuteko sortu zen.

B. EGITEKOAK

- Eguneroko lanean sortutako azaro zehatzei heltzea, irtenbideak bilatzeko.
- Egitekoak hobeto betetzeko lagungarri diren jakintzak, trebetasunak eta esperientziak partekatzea.
- Lan-tresna eta jarduera-gida komunak egitea.
- Análisi teknikoak eta lan-proposamenak egiten laguntzea.

C. EZAUGARRIAK

- Berdintasunerako Administrazio Unitateen Sarea berdintasunerako unitateetako teknikariek osatzen dute. Web-gune bat du, non sare horretan sortutako informazioa eta bestelako agiri interesgarri batzuk jasotzen diren.

D. GItren GOMENDIOAK

Nola optimizatu berdintasunerako unitate sarearen zeregina?

- Garrantzitsua litzateke sarea baliagarri izatea Emakunderi dagokionez berdintasunerako unitateek duten eskaera komunak zehaztu, zentralizatu eta artikulatzeko; horrela, solasaldi bakarra legoke, eta denbora eta ahalegina aurrezten lagunduko luke.

5. FLUXUGRAMA

EGITURA POLITIKOA

EGITURA TEKNIKOAK

